

IU! GAZTE

Iurretako Gazteria Zerbitzua.
2020 urtarrila.

SARRERA

3-4

EMAITZA

5-11

GARAPENA

12-20

**HURRENGO
PAUSOAK**

21-27

SAPPRERA

Esku artean duzun hau 2017ko urtarrila eta 2019ko abendua artean, lurretako Gazteria Zerbitzua, hau da, IU! Gazte, diseinatzeko garatu diren lanen laburpena eta azalpena jasotzen dituen txostena da. Txosten honek urte hauetan zehar egindako lana testuinguratzeko balio duelarik.

lurretako Gazteria Zerbitzua sortzearen beharra Udalak antzemandako errealitate batetatik oinarritu zen: herriko gazteen nahi eta beharrei berariaz zuzenduriko zerbitzu eskaintzaren gabezia.

Gabezia horri erantzuteko helburuarekin, 2017ko urtarrilean, gazteekin eta herriko beste gizarte eragile batzuekin batera era parte-hartzailean garatu den proiektua jarri zen martxan. Proiektua fase ezberdinetan garatu da eta 2019ko abenduan, behin-betiko zerbitzu eredura iritsi da.

IU! Gazte diseinatzeko prozesua lurretako Udalak sustatua eta Tipi eta Maraka estudioek diseinatu eta kudeatua izan da.



Zer diseinatu da?

Iurretako IU! Gazte zerbitzua, eragile ezberdinen parte-hartzearekin burututako prozesutik sortutako gazteria zerbitzu berritzailea da. Zerbitzuak, gazteen aisialdi eskaintza beteko duen proposamen bat izateaz gain, balio zehatz batzuk sustatu eta gazteen ahalduntzea bultzatu nahi ditu.

ZER DA IU! GAZTE?

IU! Gaztek lurreta eta inguruko gazteentzako aisialdi eskaintza proposatzen du, honen mesedera dagoen espazio fisiko batekin batera (Etxego).

Aisialdi eskaintza lau elementutan banatzen da:

1

IU! Barikuak

Ostiralero Etxegon (IU! Gazteren egoitza, Orobiogoitia institutuaren alboan dagoen eraikin hexagonal) egiten diren ekintza/tailerrak, gazteen interesekin lotuta: kirola, zinea, gastronomia... Programazioaren helburua Etxegora joateko ohitura piztea eta aisialdirako modu ezberdinak erakusteko bidea bada ere, honetan parte hartzea ez da derrigorrezkoa. Gazteek ostiraletan Etxegon modu librean egoteko aukera ere badute, espazioa zabalik dagoen bitartean.

2

IU! Bereziak

Hilabeteen behin antolatzen diren ekintza bereziak, gai batean adituak diren pertsonekin. Honen helburua da gai berriak ezagutzera ematea eta normalean Etxegora hurbiltzen ez diren gazteak erakartzea.

3

IU! Irteerak

Hiruhilabeteen behin Etxegotik (eta normalean lurretatik) kanpo egiten den egun erdiko ekintza. Hauen bidez ere normalean zerbitzuaren erabiltzaile ez diren gazteak erakarri nahi dira, baita gai berriak aurkeztu, jakinmina piztu eta normalean elkarrekin egoten ez diren gazteen arteko harremanak sustatu ere.

4

IU! Gazte+

Nagusiagoak diren gazteei euren intereseko jarduerak burutzeko Etxego erabiltzeko aukera. Ahal den neurrian, proposatutako jarduerak beste gazteei zabaltzea eskatuko da eta, hauen dimentsioaren arabera, finantziazioarekin laguntzeko eskaera egin ahalko zaio Udalari. Honekin epe ertain-luzerako proiektuak aurrera eramatea ahalbidetu nahi da, baita nagusiagoak diren gazteei beste eskaintza mota bat aurkeztu.

ZELAKOA DA IU! GAZTE?

IU! Gaztek balio jakin batzuen sustapena landu nahi du, hauek hurrengoak izanik:

Genero berdintasuna:

Neska eta mutilen arteko genero desorekak ekiditeko genero ikuspegia txertatzea beharrezko baldintza da, izan ere itxuraz neutrala den plangintzak genero rol tradizionalak erreproduzitu ahal ditu.

Ezberdinarekiko errespetua:

Faktore asko izan daitezke ezberdintasun hori nabarmenean jartzen dituen baina IU! Gaztek eremu segurua izan behar du, non gazte guztiek berarien lekua izango duten.

Bizikidetza:

IU! Gazteko jardueretan errespetuz, laguntasunez eta elkartasunez jokatu da, eta balio hauen garrantzia transmititzeko ahaleginak egingo dira.

Ahalduntzea:

Gazteek pixkanaka euren aisialdian esku-hartze handiagoa izateko ohitura garatu dezaten lan egingo da. Ondoren, beraien bizitzaren beste esparruetan ohitura hori mantendu dezaten.

Elkarlana:

Zerbitzuaren barruan eta honen inguruan dauden eragileen arteko elkarlana gakoa da arrakasta lortzeko.

Alde batetik, zerbitzuaren barruan, gazteek, zerbitzu emaileak eta Udalak elkarrekin lan egin behar dute, bakoitzak bere esparrutik jakintza, gogoak edo baliabideak eskainiz. Eredu horizontalagoa lortzeko asmoarekin eta zerbitzuarekiko harreman hierarkizatua (eta pasiboa) ekiditeko.

Bestalde, zerbitzuaren inguruan dauden eragileak ere kontuan hartu beharko dira, eta elkarrekin lan egiteko aukerak bilatu eta aprobetxatu.

Parte-hartzea:

Zerbitzua arrakastatsua eta esanguratsua izan dadin, gazteen parte-hartzea funtsezkoa da.

Adina eta ohitura faltak oztopo izan daitezkeen arren, saiakerak eta eredu berriak bilatzea ardatz izango dira zerbitzuan.

Kalitatea:

Zerbitzuari denboran eutsi nahi bazaio eta erabiltzaile kopurua handitu nahi bada, funtsezkoa da gogobetetze-maila handia izatea, eta hori alderdi guztietan aplikatu beharko da: harremanetan, espazioan, jardueretan eta abarretan.

Berrikuntza:

Bai gaietan zein antolaketan eredu berriak saiatzeko esparrua eskaini nahi da, zerbitzua etengabeko hobekuntza prozesuan egon dadin.

Euskara:

Iurreta herri euskalduna izanik, euskara da zerbitzuaren komunikazio-hizkuntza, eta honen erabilera sustatzea eta babestea zerbitzuaren nortasunaren parte da.

NORI ZUZENDUA DAGO IU! GAZTE?

IU! Gazteren erabiltzaile direnak deskribatzeko lau gazteren arketipoak definitzen dira.

Hauek zerbitzuaren erabiltzaileak diren gazteak errepresentatzen dituztelarik:



Alaitz

11 urteko neska, zerbitzura heldu-berria, lotsatia, beti lagunekin ibiltzen dena. Musika, bideojokoak, mendia eta sukaldaritza ditu gustoko.

IU! Barikuen erabiltzaile potentziala da.



Jonathan

14 urteko mutila, ekintzailea baina gatazkatsua, beti lagunekin ibiltzen da eta modu autonomoan ekintzak burutzeko gogoak ditu. Bere zaletasunak abentura kirolak, bideojokoak, futbola eta youtube dira.

IU! Barikuak (tailerretan parte hartu gabe) eta irteeretara joateko prest dagoen erabiltzailea da.



Nerea

13 urteko neska, berarentzat ez du ekintza erakargaririk ikusten lurretan. Artea, literatura eta zinea ditu gustoko.

IU! Berezieta erabiltzaile potentziala da.



Urtzi

17 urteko mutila, lurreta aspergarria iruditzen zaio eta beste herrietan bilatzen ditu aisialdi aukerak. Kirola, mendia eta euskal dantzak ditu gustoko.

IU! Gazteren programazioan parte hartu gabe, Gazte+-eko erabiltzaile izan daiteke.

Erabiltzaileen inguruko xehetasun gehiagorako «IU! GAZTE! | Zerbitzua txostena» eranskinetako «O4 Personak fitxak» kontsultatzea gomendatzen da.

ZELAN FUNTZIONATZEN DU IU! GAZTEK?

Zerbitzuaren funtzionamendua azaltzeko, bi gaitan jartzen da fokua: pausoak eta eragileak.

Pausoak

Zerbitzua eskaini ahal izateko bost etapa nagusi bereizten dira:

1. **Zerbitzu emailearen kontratazioa:**

Udalak eta zerbitzu emaileak hartzen dute parte. Pliegoak prestatu, proposamen batekin lizitaziora aurkeztu, proposamenak baloratu, aukeraketa egin eta kontratazioa aurrera eramatea dira ekintza nagusiak.

2. **Zerbitzua emateko prestaketak:**

zerbitzu emaile eta erabiltzaileen arteko harremanak dira indar gehien hartzen dutenak. Etapan zehar programazioa prestatu, ezagutzera eman (komunikazio bideek eta euskarriek garrantzi handia hartzen dute hemen) eta gazteekin lehenengo kontaktuak egingo dira.

3. **Zerbitzua eman:** gazteen eta zerbitzu emailearen arteko kontaktua ematen da batez ere, programazioan parte hartu eta hezitzaileekin harremana sortuz, IU! Gazteren parte izateko ohitura sortzeko. Ekintzaren arabera egin behar

ezberdinak egon daitezke, zerbitzu emailearen zein gazteen partetik:

- IU! Barikuak: zerbitzu emailea produkzio eta komunikazioaz arduratuko da eta ekintza bakoitzaren ostean ebaluaketa fitxa bat beteko du. Hortaz gain, ziurtatu behar du gazteek zerbitzuaren inskripzio orria betetzen dutela haien oinarrizko informazio datuekin.
- IU! Irteerak: zerbitzu emaileak ekintza proposatu eta ekoiztu beharko du eta jardueraren arabera errefortzuko hezitzaileak kontratatu beharko ditu. Gazteek izena eman eta baimen orriak bete beharko dituzte.
- IU! Bereziak: zerbitzu emailea ekintzaren produkzioaz eta komunikazioaz arduratu beharko da eta, ekintzaren arabera, izen-ematea kudeatu.
- IU! Gazte+: kasu honetan zerbitzu emaileak bitartekari papera bete

beharko du, gazteen eta Udalaren arteko harremana errazteko, izan ere, kasu honetan Udalaren esku egongo da eskaeraren balorazioa eta onarpena.

4. **Ekintzen proposamena:** zerbitzu emaileak gazteen proposamenak bideratu beharko ditu. Horretarako parte-hartzea sustatzeko ekimenak egin eta ideiak ondo garatzeko laguntza eskaintzeaz gain, Udalarekin koordinatu beharko da proposamen horiek aurrera ateratzeko.

5. **Zerbitzua eman ondorengoak:** zerbitzu emaileak zerbitzuaren inguruko gazteen iritziak jaso beharko ditu eta ondoren, Udalarekin batera, ebaluaketa saio bat antolatu, non ondorioak eta hobekuntzak definituko dituzten.

Funtzionamenduaren inguruko xehetasun gehiagorako «IU! GAZTE! | Zerbitzua txostena» eranskineko, «06 Blueprint» eta «07 Kontaktu puntuak» kontsultatzea gomendatzen da.

Eragileak

Zerbitzuaren eskaintzan hainbat eragilek parte hartu arren, garrantzitsuenak diren hirurak azaltzen dira ondoren:

Eragileen inguruko xehetasun gehiagorako «IU! GAZTE!» | Zerbitzua txostena» eranskineko, «02 Eragile mapa», «03 Eragileen arteko harremanak» eta «05 Eragileen fitxak» kontsultatzea gomendatzen da.




Gazteak

DBH 1. mailatik gorako gazteak, lurreta edo ingurukoak. Zerbitzuaren erabiltzaile izateaz gain, programazioan esku-hartzeko aukera daukate eta hau sustatzen saiatzen dira.



Udala

Alkate, zinegotzi eta Kultur Etxeak batik bat, zerbitzua aurrera eramateko baliabideak eta erraztasunak jartzen dituzte gazteen parte-hartzea eta erantzunkizunaren truke.



Zerbitzu emailea

Zerbitzua martxan jartzen du. Horretarako Udalarekin koordinatzen da, programazioa osatu eta ekoizten du eta hezitzaileak kontratatzen ditu, besteak beste. Talde honen barruan koordinatzaile bat, hezitzaile finkoak eta errefortzuko hezitzaileak aurreikusten dira.

GA RAPENA

Nola diseinatu da?

Atal honetan, IU! Gazte zerbitzua diseinatzeko jarraitutako prozesua azaltzen da. Prozesua ondorengo lau fase nagusitan antolatzen da: ikertu, sortu, prototipatu eta definitu.

Azpiko eskemak prozesua era bisualean jasotzen du, ondorengo orrialdeetan fase bakoitzaren azalpena jasotzen delarik.

2017

Urtarrila-apirila

IKERTU

1

Irekiera saioa Udalarekin.

2

«Safari ibilbideak».

Elkarrizketa pertsonalak.

Tendentzia eta erreferentziazko ekimenen bilaketa eta azterketa.

3

Emitzen aurkezpen saioa Udalarekin.

Apirila-ekaina

SORTU

1

Zerbitzuak kodiseinatzen saioa I: 12-16 urte bitarteko gazteak.

Zerbitzuak kodiseinatzen saioa II: 16-18 urte bitarteko gazteak.

Zerbitzuak kodiseinatzen saioa III: Udal-taldea.

2

Diseinu taldearen barne-lana.

Ekaina

Lehen prototipoa

1

«Jaietarako ideia deialdia».

2018

PROTOTIPATU

Bigarren prototipoa

1

«Gazte ideia deialdia».

2

Neguko zine zikloa Kultur Etxean.

3

Udaberriko gazte ekintzak: *paintball* irteera eta *paddle sup* irteera.

4

San Migeletako «Gazte Egunaren» programazioa definitu.

2019

Uztaila

Hirugarren prototipoa

1

«Bigarren gazte ideia deialdia: Etxego berpizteko proposamenak».

2

Otsaila eta apirila bitartean Etxego larunbatetan zabalik.

3

Ismael Iglesias artistarekin eraikina apaintzeko egun osoko tailerra.

4

Maiatzean Etxego ostiraletan zabalik.

5

Sukaldaritza tailerra.

6

Udaberriko gazte irteerak: Zornotzako *paintball* parkea eta Ontza abentura parkea.

Uztaila-abendua

DEFINITU

7

San Migeletako «Gazte Egunaren» programazioa definitu.

8

Urria eta abendua bitarteko ostiraletan Etxego zabalik mantendu. Sukaldaritza, zinea eta bestelako gaietan oinarritutako programazio jarraia eskainiz.

9

Etxegoko eraldaketarekin hasteko lehenengo elkar-sorkuntza tailerra Teo arkitektura estudioarekin.

10

Sare sozialen dinamizazioa eta eskuorri informatiboen buzoneoa.



Garapena

Testuingurua ulertzeko fasea izan zen hau. Gazteria eta bere testuinguruan parte hartzen duten eragileen identifikaziotik hasita, ikerketa kuantitatibo eta kualitatiboaren konbinaketaz, egoeraren diagnostikoa eratu zen.

Laburbilduz, fase honetan ondorengoak egin ziren:

- Proiektua zehazteko irekiera saioa Udalarekin.
- «Safari ibilbideak» lurretatik.
- Elkarrizketa pertsonalak gazteria eta beraien inguruko bestelako eragileekin.
- Tendentzia eta erreferentziazko ekimenen bilaketa eta azterketa.
- Emaizten aurkezpen saioa Udalarekin.

Emaitzak

Fase honetatik eratorritako emaitzak ondorengoak izan ziren:

- Proiektuaren izen eta irudia.
- Gazteen errealitatearen argazkia.
- Ondorio-kontzeptuak.
- Diseinu-erronkak.
- Tendentziak eta erreferentzia diren ekimenen bilduma.

Honen inguruko xehetasun
gehiagorako «IU! GAZTE!
I Prozesuaren laburpen
txostena» eranskineko, 6-18
orrialdeak kontsultatzea
gomendatzen da.



Garapena

Ikertu fasean identifikatutako behar eta nahiei aurre egiteko proposamenak sortzeko fasea izan zen hau. Fase honen helburua, Udalak gazteei zuzendutako zerbitzuen proposamen baten ildoak definitzea izan zen.

Fase hau partaidetza saioen bidez garatu zen eta hauen ondoren lan-taldearen barne lanaren bidez osatu zen.

Partaidetza saioek sormena eta enpatia bultzatzea, eta parte-hartzaileak ahalduntzea dute oinarritzat. Kasu honetan 3 partaidetza saio burutu ziren: 2 saio adin tartearen arabera antolatutako gazte talde ezberdinekin eta 1 Udaltaldearekin.

Laburbilduz, fase honetan ondorengoak egin ziren:

- Zerbitzuak kodiseinatzen saioa I: 12-16 urte bitarteko gazteak.
- Zerbitzuak kodiseinatzen saioa II: 16-18 urte bitarteko gazteak.
- Zerbitzuak kodiseinatzen saioa III: Udaltaldea.
- Diseinu taldearen barne-lana.

Emaitzak

Fase honetako emaitza «Gazte ideia deialdia» izan zen.

Honen inguruko xehetasun gehiagorako «IU! GAZTE! | Prozesuaren laburpen txostena» eranskinetako, 36-37 orrialdeak kontsultatzea gomendatzen da.



Prototipatu fasea prozesuko atal luzeena izan zen eta maila ezberdinetan garatu zen. Prototipo bat behin-betiko diseinua ekoiztu aurretik lantzen den eredu da. Honek, proposamenaren alderdi ezberdinak balioztatu edo baztertzeko balio duelarik.

Lehen prototipoa: «Jaietarako ideia deialdia»

2017ko ekaina-iraila.

Hasteko, prozesuaren emaitza izan zen «Gazte ideia deialdia» osotasunean definitzeko helburuarekin, honen «prototipoa» delakoa sortu zen. Kasu honetan, «Jaietarako ideia deialdia» prototipoa sortu zen.

Prototipoaren bitartez «Ideia deialdia» gazteentzako formatu egokia eta erakargarria zela konfirmatu zen. Horretaz gain, etorkizunean ezartzeko kontuan hartu beharreko beste hainbat gako ere ondorioztatu zirelarik (testuinguru fisiko eta digitala konbinatzearen garrantzia, irudi deiagarria aplikatzearen onurak, aurkezpen formatuko deialdia zabaltzeko topaketak antolatzearen balioa, etab.).

Bigarren prototipoa: «Gazte ideia deialdia»

2017ko iraila-2018ko iraila.

Ondoren, ekintza puntual baterako ez ezik, urtean zeharreko gazte programazioa era parte-hartzailean definitzeko proposa zela konfirmatzeko helburuarekin, 2017/2018 ikasturtean «Gazte ideia deialdia» jarri zen martxan. Deialdiaren bitartez gazteek egin nahi zituzten ekintzak proposatu zituzten eta hauek garatzeko konpromezua hartu zuten hainbat lan saioetan parte hartuz eta horretarako mekanismoak abian jarriz.

Laburbilduz, fase honetan ondorengoak egin ziren:

- «Gazte ideia deialdia» martxan jarri.
- Deialdiko ideien lanketarako bitartekaritza lanak.
- Neguko zine zikloa Kultur Etxean antolatu.
- Deialdia eta bitartekaritza lanen emaitza «Udaberriko gazte ekintzak» burutzea izan zen: *paintball* irteera eta *paddle sup* irteera.
- San Migeletako «Gazte Egunaren» programazioa definitu.



Hirugarren prototipoa:

«Bigarren gazte ideia deialdia: Etxego berpizteko proposamenak» eta programazio jarraiaren hasiera

2018ko iraila-2019ko abendua.

2018ko udazkenean bigarren ideia deialdia abiatu zen, lehen edizioaren eredua jarraituz eta berrikuntza txikiren bat aplikatuz. Nabarmenena, Etxego* espazio berriari begirako proposamenak jasotzera begira egin zela deialdia.

Hilabete horietan zehar, Etxegon ekintza ezberdinak gauzatu ziren jarraitasunez, lurretako Udalaren gazteentzako eskaintza sendotuz. Horretarako, ekipamendu minimoa definitu eta erosi zen. Gazteekin eta hezitzaileekin batera egin zen aukeraketa, betiere eremu publikoa zela kontuan hartuz eta, beraz, barneratzailea izatea bermatuz eta genero berdintasuna kontuan hartuz.

Aipatzekoa ere bada fase honetan komunikazioari protagonismo handiagoa eman zitzaiola, hau era egituratuagoan egin zelarik. Etxego eta honen baitan egindako programazioa zabaltzeko euskarriak sortu ziren eta sare sozialak (Instagram eta Whatsapp) dinamizatu ziren. Honetaz gain, otsailean eta irailean programazioa jasotzen zuen eskuorri informatiboen etxex-etxeko buzoneak ere egin ziren.

*Etxego: Etxego gazteentzat bideratutako espazioa da. Orobiogoitia Institutuaren ondoan kokatzen den eraikin hutsa zen hau eta Udalak Eusko Jaurlaritzarekin baimena lortu zuen, hau berrerabiltzeko.

Laburbilduz, fase honetan ondorengoak egin ziren:

- «Bigarren gazte ideia deialdia: Etxego berpizteko proposamenak» martxan jarri.
- Deialdiko ideien lanketarako bitartekaritza lanak.
- Otsaila eta apirila bitarteko larunbatetan Etxego zabalik mantendu, espazioaren erabilera librea egiteko (jolasak, kirolak, pelikulak eskura). Maiatzean, gazteek proposatuta, ostiralera pasatu zen eta horrela mantendu da.
- Ismael Iglesias artistarekin eraikina apaintzeko egun osoko tailerra martxoan.
- Sukaldaritza tailerra Aingeru Etxebarria ostalaritza eskolarekin maiatzean.
- Udaberriko gazte irteerak: Zornotzako *paintball* parkea eta Ontza abentura parkea.
- San Migeletako «Gazte Egunaren» programazioa definitu.
- Urria eta abendua bitarteko ostiraletan Etxego zabalik mantendu. Sukaldaritza, zinea eta bestelako gaietan oinarritutako programazio jarraia eskainiz.
- Etxegoko eraldaketaren hasteko lehenengo elkar-sorkuntza tailerra Teo arkitektura estudioarekin.
- Sare sozialen dinamizazioa eta eskuorri informatiboen buzonea.



Prozesuaren azken fasea izan zen hau eta hirugarren prototipoa garatzen zen bitartean burutu zen.

Prototipazio fasean egindako ekintza eta lan egiteko moduetatik eratorritako ondorioetatik Udal Gazteria Zerbitzuaren eta, honen baitan Etxegoren definizioa egin zen.

Honetarako, 2017 eta 2019 artean egindako guztiaren sakoneko azterketa egin zen eta Udalarekin eta beste eragile batzuekin (hezitzaileak eta beste herri batzuetako Gazteria Zerbitzuetako arduradunak) topaketak egin ziren. Saio hauetatik zerbitzuaren oinarriak landu eta adostu zirelarik.

Jarraian, zerbitzua definitzerako orduan abiapuntutzat hartu ziren ondorio horiek azaltzen dira:

1. «Genero desorekak sahiesteko moduak bilatzearen beharra.

Espazioaren erabilerari eta bertan ematen diren jarrerei dagokionez, genero aldetik ezberdintasunak ikusten dira. Hauek leuntzeko neurriak jarri behar dira eta esparru honi dagokionez, espazioaren antolamendua, programazioarekin batera, gako izan daiteke».

2. «Adin-banaketa zerbitzua erabiltzean nabarmena da. Gazteenak (LH 6. mailatik aurrera) tailerretan parte hartzen dute gehien bat, DBHkoek, zenbat eta nagusiagoak orduan eta libreago egotea nahi izaten dute. Batxilergokoek, berriz, ez dute zerbitzua erabiltzen».
3. «Elkarbizitza arazoak eta istripuak gertatu ahal dira eta hauek ezin dira guztiz aurreikusi. Pixkanaka elkarbizitza arauak adosten dituzten protokolo berriak sortzen ari dira eta horretarako funtsezkoa

da eragile guztien elkarlana eta koordinazioa eta baita erreakzionatzeko gaitasuna ere».

4. «Programazio bat izatearen beharra. Gazte guztientzako esparrua izan nahi du zerbitzuak baina berezitasunak ere kontuan izan behar ditu. Zentzu honetan, tailerrak mantentzea egokia da, alde batetik zerbitzuari osotasuna eta erregulartasuna ematen diolako eta, bestetik aisialdirako aukera ezberdinak eskaintzeko helburuarekin bat egiten duelako, eredu proaktiboagoak sustatuz. Gainera, euskararen erabilera sustatzeko modu aproposak ere badira. Hala ere, tailerren gaiak ondo garatu behar dira, horregatik ostiraleroko tailerretaz aparte, ekintza bereziak proposatu beharko dira, espezializatuagoak edo bitxiagoak, gazteen interes esparrua hedatzen saiatzeko. Gaiei dagokionez, gastronomia, kirola eta irteerak dira



identifikatutako interes nagusiak. Edozein kasutan ere, oreka bat bilatu behar da, libre egoteko aukera izatea oso ondo baloratzen da eta nagusiak erakartzeko baldintza izaten da askotan. Ekintzenganako interesa piztea prozesu bat izan daiteke, pixkanaka egingo dena».

5. «Gazteen nahiak eta beharrak kontuan izatea guztiz beharrezkoa da eta froga ezberdinak egiteko aukerak erraztu behar dira. Honen erakusle da, esaterako, finkatutako irekiera egunak. Momentuz Etxego egun batean soilik egongo da zabalik. Hasieran larunbatetan izatea erabaki zen baina arrakasta gutxirekin. Gazteek proposatuta ostiraletan zabaltzea frogatu zen eta honekin, joaten ziren gazteen kopurua nabarmen igo zen».

6. «Hezitzaileen rola zerbitzuaren arrakastarako estrategikoa da. Jarrera aktibo eta propositiboa izan behar dute gazteekin eta euren konfidantza lortu. Horretarako bi gauza bermatu behar dira: alde batetik hezitzaileen jarraipena, izan ere denborak baino ez du lortuko konfidantza giro hori; eta bestetik, hezitzaileen eskuhartzea programazioan, haiek ezagutzen baitituzte gazteen nahiak eta egiten dutenarekin eroso sentitu behar direlako, ez hainbeste gaitasunagatik baizik eta egiten dutena arrazoi batean oinarrituta dagoela ikusteko».

**HURRRENGO
PAUSOAK**

HURRERENG
PAUSOAK

Zer egin hemendik aurrera?

Datozen hilabeteetan, hurrengo pausoak ematea aurreikusten da:

Lizitaziorako pliegoak egitea eta adjudikatzea.

Koordinazio sistema eraginkorra ezartzea Udala eta zerbitzu emailearen artean.

Zerbitzuaren ebaluaketa egiteko sistema bat sortzea honen etengabeko hobekuntza ziurtatzeko.

Etxego eraldatzeko obrak egitea, zerbitzuaren izaera, balio eta beharrei erantzuna emanez, erabilera anitzak bermatzen eta barruko zein kanpoko aldea kontuan hartuko dituen diseinuan oinarriturik. Diseinu hau, ahal den neurrian modu parte-hartzailean osatu beharko da, gazteen nahiak eta zerbitzuaren balioen arteko oreka bilatuz.

Idea deialdia birpentsatzea: orain arte gazteek parte hartzeko modu bat izan da, arrakastatsua hasieran baina indarra galdu duena. Soilik proposatu barik, ideiak garatzeko bide aproposa dela frogatu da eta eredu honekin jarraitzeko modu bat aurkitzea komenigarria izango litzateke.

Inguruko beste gazteria zerbitzuekin harremanak sortzea eta indartzea, beste gazte batzuekin egon ahal izateko eta baita momentu jakinetan (ekintza bereziak antolatzeke momentuetan esaterako) baliabideei etekin handiagoa ateratzeko.

Bestalde, kontuan izan behar da IU! Gaztek hiru urte daramatzala abian eta jadanik ibilbide nabarmena egin duen arren, beste hainbat erronkei egin beharko diela aurre etorkizunean. Horien artean aipatzekoak dira:

IU! Gazte lurretako gazteentzako aisialdiaren esparruan erreferente bilakatzea, bai fisikoki, Etxego espazioaren bidez, eta baita antolatutako ekintzen bidez, aisialdi eredu barneratzaile eta berritzailea eskainiz, genero desorekak eta bestelako banaketak sahiesten saiatzen dena, eta zaletasun berriak suspertzen dituen.

Gazteentzako aisialdi eredu proaktiboa sustatzen jarraitzea, non gazteen parte hartzeak gero eta pisu handiagoa hartzen duen, ahal den neurrian eredu kontsumitzaileak baztertuz.

Gazteen parte hartzeko ohitura sustatzea. Parte-hartzea konplexua da orokorrean, eta gazteekin bereziki, baina hauek motibatzen moduak bilatu eta suspertu behar dira, betiko ereduetatik aldenduz eta egiteko modu berriak bilatuz. Parte hartzeko ohitura hori gero herriko bizitzaren beste esparruetara mugitu ahal izateko, parte-hartze kultura indartuz.

Zerbitzu ireki eta gardena izatea, gazteekin interlokuzio zuzena daukana. Urte batetik bestera aldaketa nabarmenak egon ahal dira erabiltzaileen artean eta aurretik funtzionatzen zuenak baliteke gehiago ez egitea. Horregatik gazteak entzun eta hauekin hartu-emanak ziurtatu behar dira.

Udala eta zerbitzu emailearen artean harreman koordinatu eta moldagarria ezartzea zerbitzua errazten duena eta berrikuntzak ezartzea ahalbidetzen duena.







